

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Jendaurrean jartzea hiri eta landa ondasun higiezinaren gaineko eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2024ko erroldak eta kobratzeko moduan jartzea

Arabako Foru Aldundiak Gaubeako hiri eta landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2024ko ekitaldiko erroldak egin ditu, bat etorritik zerga hori arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 21.2. artikuluan xedatutakoarekin, jendaurrean jartzen dira udal honen idazkaritzan, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

borondatezko aldiko dirubilketa epea abuztuaren 26tik urriaren 26ra bitartekoa izango da, biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2024ko urriaren 5ean kobratuko zaie.

Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutxatan helbideratu ez duten zergapekoek udal bulegoetan ordaindu beharko dute, borondatezko aldirian, 09:00etatik 15:00etara, udal bulegoetan, adierazitako epearen egun baliodunetan.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: udalak izapidetuko ditu. Zergadunei gogorarazten zaie ordainketen banku helbideratzeen altak edo aldaketak Gaubeako Udalean izapidetu behar direla.

Borondatez ordaintzeko epea igaro ondoren, betearazte aldia hasiko da, zeinak premiamendu errekarua eta berandutze interesak baitakartza, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Gaubea, 2024ko uztailaren 17a

Alkate-lehendakaria
GORKA SALAZAR SENSO